

LANGILLE GAYA

—Mutill, aunditu aiz ta
 biardek askatu
 pentsaturikan zentan
 aurrera sayatu.
 ¿Zer ofiziyotako
 daukak ik gogau?

tira, ¿zer nai dek izan?
 —Nik... igeltserua.
 —Bañan mutill, ¿ez dakik
 arkitzen dirala
 askotan lanik gabe?
 —Orrengatik bada.

O GIYAREN LAGUNTZA

—Osorik arkumia
 jan dek?
 —Bat beñepiñ.
 —¡Mutill! ¿ta nola jan dek?
 —¿Jan? Ogiyarekiñ.

MARZELINO SOROA.

* *
 * *

CHOMIÑ MOSKORTI

Bein baten sartu nintzan
 Barnetzeko bentan
 Eta topatu neban
 Chomiñ Ordi bertan;
 Moskorti izengaña
 Chomiñ orrek eukan
 Jaiakeran artuta
 Erriojako pontan.
 Chomiñ Ordi entzunaz

Au, ikaratu zan:
 —Sekula ezbanaz iñoz
 Erriojan ni izan
 ¿Zelan batiatu naz
 Erriojako eleisan?
 —¡A Chomiñ! ¿zer diñozu?
 ¿Zoratuta zagoz?
 ¡Zure paper guztiyak
 Erriojan dagoz!

BONIFAZIO LACHA ETA AGUIRRE.

Ubidean, 1896-ko Uztan.